# Justizia Administrazioa

### IRUNGO LEHEN AUZIALDIKO 4 ZENBAKIKO EPAITEGIA

EDIKTUA, 17/02 kiebrari dagokiona. 11488

# Iragarkiak

## Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

### ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

LEHIAKETA. Iragarkia, Donostia-San Sebastiángo «IN.01 Marrutxipi» HJAko 3 HAko hiriketalanen zuzendaritza, ikuskaritza eta segurtasun eta osasun arloko koordinazioa egiteko aholkularitza eta sorospena kontratu esleitzeko. (Espedientea: 17T/02). 11488

### BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA

EBAZPENA, Bizkaiko Garraio Partzuergoarena, Bilboko Ugasko kaleko 5 zenbakian (1. solairua) Bizkaiko Garraio Partzuergoaren bulego berriak prestatzeko proiektuari dagozkion obrak egiteko lizitazioa iragartzen duena. 11491

# Administración de Justicia

### JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N.º 4 DE IRUN

EDICTO dimanante de la quiebra 17/02. 11488

# Anuncios

## Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

### DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

CONCURSO. Anuncio para la adjudicación del contrato de consultoría y asistencia que tiene por objeto la Dirección, inspección y coordinación en materia de seguridad y salud, en la ejecución de las obras de urbanización de A.U.3 del A.I.U. «IN.01 Marrutxipi» de Donostia-San Sebastián (Expediente 17T/02). 11488

### CONSORCIO DE TRANSPORTES DE BIZKAIA

RESOLUCIÓN del Consorcio de Transportes de Bizkaia por la que se anuncia la licitación del concurso para ejecución de las obras del »Proyecto de habilitación de las nuevas oficinas del Consorcio de Transportes de Bizkaia en la C/ Ugasko n.º 5 - 1.ª Planta Bilbao». 11491

# Xedapen Orokorrak

### ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### Zk-3755

133/2002 DEKRETUA, ekainaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen alorrean jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituena.

Lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko Sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak ezarritakoaren arabe-

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### N°-3755

DECRETO 133/2002, de 11 de junio, por el que se regulan las ayudas para la realización de actividades en el área de los servicios sociales en el País Vasco.

En virtud del Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de

ra, baita aurrekoa aldatzeko lehendakariak irailaren 17ko 19/2001 Dekretuaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailen egitura berrantolatzeari eta bertako sailen eskumen berriak esleitzeari ekin zaio.

Uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuaren 10 bis artikuluak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sail berriari dagozkion egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu, irailaren 17ko 19/2001 Dekretuak emandako idazkeraren arabera.

Gizarte-zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legean jasotako mandatuak eta boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legea kontuan hartuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari dagokio alor horietan Jaurlaritzaren obligazioei eta gizartearen eskaerei erantzuteko programak eta jarduerak egin ahal izateko baliabide finantzarioak, teknikoak eta giza baliabideak sustatzea.

Dekretu honek ezartzen ditu laguntzak emateko erabiliko diren jarraibideak, diru-laguntza jasotako programa hauen gehienezko eraginkortasuna bilatuz, eta aldi berean, pertsona, erakunde zein elkarte interesdun guztiek aukera berberak izan ditzatela lortu asmoz.

Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira beren izaera edo xedea dela-eta gizarte-bazterketaren eta pobreziaren aurka ari diren programa eta jarduera guztiak.

Dekretu honen xede nagusia, epe ertainerako egonkortasuna eta segurtasun juridikoa izango duen jarduera-esparrua konfiguratzea da. Beraz, ondorengo xedapenek aldatu edo indargabetzen duten arte denboran zehar iraunkorra izateko eitea eman zaio.

Dekretu honetan zehaztutako oinarrizko laguntzaildoak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuaren aginduek garatuko dituzte urtero, horien erregulazioa osatuz.

Laguntzak emateko erabiliko den prozedura nagusia lehiaketa izango da, eta halakotzat hartuko da azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko, Euskadiko Ogasun Orokorreko Oinarri Antolatzaileen Legearen Bateratutako idazkiko 51.4 artikuluan aurreikusitako prozedura.

Laguntzak eskatzetik ematerako berehalakotasun handiagoa eskatzen duten programetan –konponbide berritzaileak emango dituzten gizarte-ekimen esperimentaletan, premiazko edo ohiz kanpoko gizarte-beharretako programetan-, eskaera aurkezten den unearen araberako odenean esleituko dira, lehiaketaren teknika erabili gabe. Aipatutako laguntzak administrazio-ebazpen bidez ukatuko dira, baldin eta laguntza horiek

funciones y áreas de actuación de los mismos, así como del Decreto 19/2001, de 17 de septiembre, del Lehendakari, que modifica el anterior, se ha procedido a la reordenación de la estructura departamental de la Administración de la Comunidad Autónoma y a la nueva asignación competencial entre los Departamentos de la misma.

El artículo 10bis del Decreto 7/2001, de 16 de julio, de conformidad con la redacción dada por el Decreto 19/2001, de 17 de septiembre, contempla las funciones y áreas de actuación que corresponden al nuevo Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Teniendo en cuenta los mandatos contenidos en la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales y la Ley 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado, corresponde a la Dirección de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales la promoción de los recursos financieros, técnicos y humanos que permitan la realización de programas y actuaciones que, en dichas materias, den respuesta tanto a las obligaciones propias del Gobierno como a la demanda social.

Este Decreto establece las directrices que van a determinar la concesión de las ayudas, pretendiendo conciliar la máxima eficacia de estos programas subvencionados con el acceso en igualdad de oportunidades de todas las personas, instituciones y organizaciones interesadas.

Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente Decreto aquellas actividades y programas que por su naturaleza u objeto estén orientadas a la lucha contra la exclusión social y la pobreza.

Es finalidad primordial de este Decreto configurar un marco de actuación con carácter de estabilidad en el medio plazo y de seguridad jurídica, por lo que tiene una vocación de permanencia en el tiempo hasta su modificación o derogación por disposiciones posteriores.

Cada una de las líneas básicas de ayudas que se detallan en este Decreto, serán desarrolladas anualmente por Órdenes del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales completando la regulación de las mismas.

El procedimiento general utilizado para la concesión de las ayudas será el concurso teniendo dicha consideración el procedimiento previsto en el artículo 51.4 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

En aquellos programas en los que es necesaria una mayor inmediatez entre la petición y la concesión de las ayudas - Iniciativas sociales de carácter experimental que aporten soluciones innovadoras, Programas de necesidad social urgente o extraordinaria- la adjudicación de las mismas se efectuará ordenadamente en función del momento en que se presente la solicitud sin utilizar la técnica concursal, procediéndose mediante re-

egotzi behar zaizkion aurrekontuak lortu nahi den xederako kreditu egokia edo nahikoa ez badu.

Programa hauen interes orokorra dela eta, Dekretu honen Xedapen Gehigarrian adierazten da bere 2. artikuluan deskribaturik azaltzen diren eta diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7 c) 1. artikuluan aipatzen den zuzeneko ekintzaren barruan daudela, eta lege hori gizarte-zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeko 9.2 artikuluak eta gizarte-zerbitzuen alorreko funtzioak zehazten dituen ekainaren 30eko 155/2001 Dekretuak garatzen dute.

Diru-laguntzak arautzeko Dekretu hau egokiturik dago, nola Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen bateratutako idazkia onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko VI. Tituluan ezarritakoari, diru-laguntzak erregulatzeko edozein arauk izan behar duen gutxieneko edukiari dagokionez, hala Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak egindako aldaketari.

Ondorioz, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren proposamenez, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluarekin eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin adosturik, eta Gobernu Kontseiluak 2002ko ekainaren 11n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Xedea.

Dekretu honen helburua Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren bidez, irabazi-asmoa ez duten erakunde publiko eta entitate pribatuei Euskadiko gizarte-zerbitzuen alorrean jarduerak egiteko emango dizkien laguntzak arautzea da, gizarte-zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legean eta boluntarioei buruzko ekainaren 15eko 17/1998 Legean jasotzen diren printzipioei jarraituz.

*2. artikulua.–* Laguntza-ildoak.

Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak jasoko dituzte honako hauek:

1.– Ikastaroak eta mintegiak antolatzeak.
2.– Jardunaldiak, biltzarrak eta antzeko ekitaldiak antolatzeak.

solución administrativa a denegar las ayudas en el caso en que el presupuesto al que deban imputarse las citadas ayudas carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad perseguida.

Debido al interés general de estos programas, en la Disposición Adicional del presente Decreto se determina que las actividades subvencionales descritas en su artículo 2 se enmarcan en el concepto de acción directa al que se refiere el artículo 7 c) 1 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organismos Forales de sus Territorios Históricos, y que posteriormente se desarrolla en el artículo 9.2 de la Ley 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales y en el Decreto 155/2001, de 30 de junio, de determinación de funciones en materia de servicios sociales.

Este Decreto regulador de subvenciones se adapta tanto a lo establecido en el Título VI del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, respecto del contenido mínimo que debe tener cualquier norma reguladora de una subvención, como a la Ley 4/1999, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de regulación del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común ha introducido.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de acuerdo con el Consejo Vasco de Bienestar Social y del Consejo Vasco del Voluntariado, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 11 junio de 2002

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES COMUNES

*Artículo 1.–* Objeto.

El objeto del presente Decreto es la regulación del marco de ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, otorgará a las instituciones públicas y a las entidades privadas sin ánimo de lucro, para la realización de actividades en el área de los servicios sociales en el País Vasco, siguiendo los principios que se recogen en la Ley 5/1996 de 18 de octubre, de servicios sociales y en la Ley 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado.

*Artículo 2.–* Líneas de ayudas

Serán objeto de las ayudas previstas en el presente Decreto las siguientes:

1.– Organización de cursos y seminarios.
2.– Organización de jornadas, congresos y eventos similares.

3.– Lurraldeaz gaindiko esparruetara irekitako programak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuen funtzionamenduak.

4.– Prebentzio, laguntza eta gizarteratze programek.

5.– Boluntario antolatuei laguntzeak eta bultzatzeak.

6.– Konponbide berritzaileak emango dituzten gizarte ekimen esperimentalek.

7.– Premiazko edo ohiz kanpoko gizarte beharra duten programek.

*3. artikulua.*– Baliabide ekonomikoak.

1.– Programei zuzendutako baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan xede horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira. Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren barruan eman beharreko laguntzen bolumen osoak ez du aipatutako aurrekontuko diru-izendapena gaindituko edo hura eguneratuta sortutakoa ere, dagoen aurrekontuzko lotespenaren edo aurrekontu-aldaketak onartzearen arabera, indarrean dagoen legeriaren arabera, hori guztia Dekretu honetako 35. eta 38. artikuluetan aurreikusitakoaren kalterik gabe.

2.– Laguntzen emakida ukatu egingo da laguntzak egotzi behar zaizkion aurrekontuak lortu nahi den xederako kreditu egokia edo nahikoa ez badu, eta, horrela, Dekretu honen eta laguntza berriak ematearen inguruan bere garapen-arauen eraginkortasuna etengo da.

3.– Urteroko hurrenez hurreneko deialdi-aginduek zehaztuko dute Dekretu honen xede diren laguntza-ildoetako bakoitzari dagokion zenbatekoa.

*4. artikulua.*– Deialdiak.

Dekretu honetan aurreikusitako laguntza-ildoen emakida prozedura administrazioaren kabuz hasiko da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak horietako bakoitzarentzat egindako deialdi-aginduaren bidez.

Deialdi bakoitzean, aurreko artikuluan aurreikusitakoaz gain, programen xedeak, horiek garatu ditzaketen pertsonen edo erakundeen ezaugarriak eta eskaera egingo duenak bete beharreko baldintzak eta betekizunak zehatz mugatuko dira finantziazio publikoa erdiesteko eta, era berean, ekitaldi bakoitzean esleitzeko irizpideak eta horien ponderazioa eta eskaerak aurkezteko modua eta epea.

*5. artikulua.*– Beste diru-laguntza edo laguntzekin bateragarritasuna.

Laguntza hauen emakida beste edozein motatako diru-laguntza edo laguntzarekin bateragarria izango da. Eskaerarekin batera aurkeztu beharko da xede horretarako beste finantzazio iturririk baden zinpeko aitorpena, horien zenbatekoa, eta, hala bada, erantzuteke dauden laguntza eskariena. Baldin eta laguntzen eta diru-

3.– Funcionamiento de las entidades privadas sin ánimo de lucro que desarrollen programas abiertos al ámbito supraterritorial.

4.– Programas de prevención, asistencia e integración social.

5.– Apoyo y potenciación del voluntariado organizado.

6.– Iniciativas sociales de carácter experimental que aporten soluciones innovadoras.

7.– Programas de necesidad social urgente o extraordinaria.

*Artículo 3.*– Recursos económicos

1.– Los recursos económicos destinados a los distintos programas procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en función de la vinculación presupuestaria existente o de la aprobación de modificaciones presupuestarias, de conformidad con la legislación vigente, todo ello sin perjuicio de lo previsto en los artículos 35 y 38 de este Decreto.

2.– Se procederá a denegar la concesión de ayudas en el caso de que en el presupuesto al que deban imputarse las mismas se carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad pretendida, suspendiéndose la eficacia del presente Decreto y de sus normas de desarrollo en lo relativo a la concesión de nuevas ayudas.

3.– Las sucesivas Órdenes de convocatoria anuales determinarán el importe correspondiente para cada línea de ayudas objeto de este Decreto.

*Artículo 4.*– Convocatorias

El procedimiento de concesión de las líneas de ayudas previstas en el presente Decreto, se iniciará de oficio, mediante convocatorias realizadas para cada una de ellas por sendas Órdenes del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

En cada convocatoria, además de lo previsto en el artículo anterior, se delimitará de forma exhaustiva los objetivos de los programas, las características de las personas o entidades que pueden desarrollarlos y las condiciones y requisitos que deben concurrir en quien realiza la solicitud para poder acceder a la financiación pública así como la ponderación de los criterios de adjudicación y la forma y el plazo de presentación de las solicitudes.

*Artículo 5.*– Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

La concesión de estas ayudas será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda. Deberá presentarse, junto a la solicitud, declaración jurada de la existencia o no de otras fuentes de financiación para el mismo fin, cuantía de la misma y, en su caso, de las solicitudes de ayuda pendientes de resolu-

laguntzen zenbateko osoa jarduerarako onartutako aurrekontua baino handiagoa bada, eman beharreko laguntzari soberakin-kopurua kenduko zaio.

*6. artikulua.–* Diru-laguntzaren baldintzen aldaketa.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere xedea beteta, eta administrazio honek edo beste Herri Administrazioek edo erakunde publiko edo pribatuek emandako diru-laguntzak eta laguntzak eskuratuz gero, baliteke diru-laguntzaren emakidaren ebazpena aldatzea. Ondorio horietarako, Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak beharrezko aldaketa-ebazpena idatziko du, eta bertan emandako diru-laguntzen zenbatekoak doituko dira, emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuz, eta erakunde zein entitate onuradunek jasotako gehiegizko zenbatekoak itzultzeko obligazioa izango dute.

*7. artikulua.–* Baldintzak ez betetzeak.

Diru-laguntzaren onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen bateratutako idazkiko 53.1 artikuluak adierazitako kasuetan eroriko balitz, Dekretu honetan eta aplika daitezkeen gainerako arauetan eta baita emakidaren ebazpenean ere ezarritako edozein baldintza beteko ez balu, Gizarte Ongizateko zuzendariak, dagokion emakidaren bidez, ordaintzeke dauden kopuruak jasotzeko eskubidea galdutzat aitortuko luke, eta, hala bada, jasotako kopuruak eta diru-laguntza ordaindu zen unetik dagozkien legezko interesak ordaintzeko obligazioa izango luke, bidezko diren gainerako egintzen kalterik gabe, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei dagozkien diru-laguntzen bermeen eta itzultzeen araubide orokorra, diru-laguntzen kudeaketan lankide eta partaide diren erakundeen eginkizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuak ezarritakoari jarraiki.

Aipatutako kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira legezko ondorioetarako, arduren araubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Bateratutako idazkiko 64. artikuluan aurreikusitakoa izanik.

Ordaintzeko prozedura, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei dagozkien diru-laguntzen bermeen eta itzultzeen araubide orokorra, diru-laguntzen kudeaketan lankide eta partaide diren erakundeen eginkizunak, araubidea eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuak izaera orokorrez ezarritakoa izango da.

ción. En el caso de que el importe total de la suma de las diferentes ayudas y subvenciones obtenidas sea superior al presupuesto que resulte aprobado en la actividad, la ayuda a conceder se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso.

*Artículo 6.–* Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por ésta u otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de la subvención. A estos efectos, por la Dirección de Bienestar Social se dictará la oportuna Resolución de modificación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas, aplicándose los criterios y límites establecidos para su otorgamiento, quedando obligadas las instituciones y entidades beneficiarias a la devolución de los importes percibidos en exceso.

*Artículo 7.–* Incumplimientos.

En el supuesto de que el beneficiario de la subvención incurriese en los casos que señala el artículo 53.1 del Texto Refundido la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, incumpliese cualquiera de las condiciones establecidas en el presente Decreto y demás normas aplicables, así como en la Resolución de concesión, el Director de Bienestar Social, mediante la correspondiente Resolución, declarará la pérdida del derecho a la percepción de las cantidades pendientes y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que correspondan desde el momento del pago de la subvención, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, de conformidad con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades colaboradoras que participan en su gestión.

Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes, siendo el régimen de responsabilidades el previsto en el artículo 64 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

El procedimiento de reintegro será el establecido con carácter general en el Decreto 698/1991, de 11 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.

*8. artikulua.–* Erakunde eta entitate onuradunen obligazioak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Bateratutako idazkiko 50.2 artikuluan adierazitako obligazioen kalterik gabe, kasu horietan aplikagarriak badira, laguntzen onuradunak izango diren erakunde eta entitateak honetara behartuta egongo dira:

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Ongizate Zuzendaritzari diru-laguntza jasotako jardueraren edo programaren memoria bat bidali beharko diote, eta, horrez gain, egindako gastuaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dizkiote. Memoria horretan azaldu beharko da diru-laguntza jasotako jardueretan edo programetan jarraitutako helburuen lorpen-maila.

2.– Diru-laguntza jasotako edozein jardueraren xedea edo izaera aldatzen duen edozein gertakizunen berri eman, baita Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari jarduera horien egiaztatze, ikuskaritza, jarraipen eta kontrolerako prozeduran lankidetza eskaini ere.

3.– Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren babesa diru-laguntza jasotako jardueretan espresuki adierazi, horiek zabaldu, hedatu edo argitaratzen badira.

4.– Horien zertarakoa eta aplikazioa bermatu, berme erlazional edo errealen bidez, aurretik aipatutako abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren Lehenengo Tituluan aurreikusitakoaren arabera.

*9. artikulua.–* Kudeaketa eta ebazpena.

Dekretu honetan araututako laguntzak kudeatzeko eta ebazteko organo eskuduna Gizarte Ongizateko Zuzendaritza izango da.

Laguntza-ildo bakoitzeko Gizarte Ongizateko zuzendariak izendatutako taldeko organo bat izango da, eta berak egingo du ebazpen proposamena. Aipatutako taldeko organo horrek Gizarte Ongizateko Zuzendaritzako maila teknikoko hiru pertsona izango ditu, eta horietako bat idazkaria izango da.

Organo horien osaketa, emakida-ebazpenak eta, baldin eta izango balira, aldaketa-ebazpenak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko lirateke.

*10. artikulua.–* Isiltasunagatik ezestea.

Laguntza-ildo bakoitzerako aurreikusitako urteroko deialdi-agindua indarrean sartuz geroztik sei hilabete pasa ondoren, eta horretarako berariazko ebazpenik idatzi edo jakinarazi ez bada, eskaerak atzera botako dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazioak berariaz ebazteko obligazioaren kalterik gabe.

*Artículo 8.–* Obligaciones de las instituciones y entidades beneficiarias.

Sin perjuicio de las obligaciones señaladas en el artículo 50.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, que en su caso resulten aplicables, las instituciones y entidades beneficiarias de las ayudas quedan obligadas a:

1.– Remitir a la Dirección de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales una memoria que valore la actividad o programa subvencionado que deberá presentarse acompañando a los justificantes del gasto realizado. Dicha memoria, deberá indicar el grado de consecución de los objetivos perseguidos en la actividad o programa subvencionado.

2.– Comunicar cualquier eventualidad que altere sustancialmente el objeto o naturaleza de las actividades subvencionadas, así como a colaborar con el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en los procedimientos de comprobación, inspección, seguimiento y control de dichas actividades.

3.– Hacer constar expresamente el patrocinio del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco en todas aquellas actividades subvencionadas que conlleven la divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas.

4.– Garantizar el destino y aplicación de las mismas mediante garantías relacionales o reales, conforme a lo previsto en el Título Primero del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, anteriormente citado.

*Artículo 9.–* Gestión y Resolución

El órgano competente para la gestión y resolución de las ayudas reguladas en el presente Decreto será la Dirección de Bienestar Social.

Para cada línea de ayudas habrá un órgano colegiado, designado por el Director de Bienestar Social, que formulará la propuesta de resolución. Dicho Órgano Colegiado estará compuesto por tres personas con nivel técnico de la Dirección de Bienestar Social una de las cuales actuará como secretario/a.

Tanto la composición de estos órganos como las resoluciones de concesión y sus modificaciones, si las hubiera, serán publicados en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 10.–* Desestimación por silencio.

Transcurridos seis meses desde la entrada en vigor de la respectiva Orden de convocatoria anual previstas para cada línea de ayudas, sin que se haya dictado y notificado resolución expresa, las solicitudes se entenderán desestimadas, a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver expresamente.

*11. artikulua.–* Zerga-betebeharrak, gizarte segurantzakoak eta gizarte-zerbitzu eta diru-laguntza publikoen alorrekoak betetzea.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak eman eta ordaintzeko baldintza izango da, eskatzaileek Ogasun eta Finantza sailburuak 1991ko urriaren 7an xedatutako aginduaren arabera zerga-betebeharrak beteta dituztela egiaztatzea, baita Gizarte Segurantzaren aurrean dituztenak ere, eta gizarte-zerbitzuen alorrean indarrean dagoen legea betetzea.

2.– Era berean, Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak pertsona, erakunde eta erakunde onuradunei ematea, eta, hala badagokio, ordaintzea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak eta bere erakunde autonomoek emandako edo bideratzen ari direneko izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen baitan edozein diru-itzultze edo zehapen prozedura amaitu arte baldintzatuta egongo dira.

II. KAPITULUA
LAGUNTZA-ILDOAK

1. ATALA: IKASTAROAK ETA MINTEGIAK ANTOLATZEKO LAGUNTZA-ILDOAK

*12. artikulua.–* Xedea.

Diru-laguntza jasotzeko jardueratzat hartuko dira gizarte-zerbitzuen alorrean jarduerak garatzen dituzten erabiltzaile eta pertsonei zuzendutako ikastaro eta mintegiak.

Lanerako heziketan, etengabeko prestakuntzan edo prestakuntza arautuan kokatutako prestakuntza-ekintzei ez zaie lagunduko.

*13. artikulua.–* Erakunde onuradunak.

1.– Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte indarrean dagoen legegintzaren arabera osatutako irabazi-asmorik ez duten entitate pribatu eta erakunde publikoek. Horiek Dekretu honetan eta dagokion garapen-aginduan aurreikusitako baldintzak beteko dituzte, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan ikastaroak eta mintegiak antolatuko dituzte, gizarte-zerbitzuen alorrean jarduerak garatzen dituzten pertsonen prestakuntzarako.

2.– Era berean, laguntza horiek jaso ahal izango dituzte aurreko ataleko baldintzak bete eta gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen prestakuntzarako laguntza, ikuskapen edo autolaguntza ikastaro eta mintegiak antolatuko dituzten irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuek.

*14. artikulua.–* Esleipenerako irizpideak.

Honakoak izango dira esleipenerako irizpideak:

1.– Ikastaroa edo mintegia egiteko aukeraren eta egokitasunaren froga arrazoitua.

*Artículo 11.–* Cumplimiento de obligaciones tributarias, de Seguridad Social y en materia de servicio sociales y subvenciones públicas.

1.– La concesión y pago de las ayudas previstas en el presente Decreto queda condicionada a la acreditación por parte de los solicitantes del cumplimiento de sus obligaciones tributarias, de conformidad con lo dispuesto en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, y frente a la Seguridad Social, así como el cumplimiento de la legalidad vigente en materia de servicios sociales.

2.– Asimismo, la concesión y, en su caso, el pago a las personas, entidades e instituciones beneficiarias de las ayudas previstas en el presente Decreto quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

CAPÍTULO II
LÍNEAS DE AYUDAS

SECCIÓN 1ª: LÍNEA DE AYUDAS PARA LA ORGANIZACIÓN DE CURSOS Y SEMINARIOS

*Artículo 12.–* Objeto.

Tendrán la consideración de actuaciones subvencionables aquellos cursos y seminarios dirigidos a la formación de usuarios y personas que desarrollen actividades en el ámbito de los servicios sociales.

No se apoyarán acciones formativas enmarcables en la formación ocupacional, permanente o reglada.

*Artículo 13.–* Entidades beneficiarias.

1.– Podrán acogerse a estas ayudas las instituciones públicas y las entidades privadas sin ánimo de lucro que, constituidas conforme a la legislación vigente, cumplan los requisitos previstos en este Decreto y en la Orden de desarrollo correspondiente y organicen, dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cursos y seminarios para la formación de personas que desarrollen actividades en el ámbito de los servicios sociales.

2.– Así mismo, podrán acogerse a estas ayudas las entidades privadas sin ánimo de lucro que, cumpliendo los requisitos del apartado anterior, organicen cursos y seminarios de apoyo, supervisión o autoayuda para la formación de personas usuarias de los servicios sociales.

*Artículo 14.–* Criterios de adjudicación.

Serán criterios de adjudicación los siguientes:

1.– Justificación razonada de la oportunidad e idoneidad de la realización del curso o seminario.

2.– Ikastaro edo mintegiaren kalitatea edo interesa, jorratu beharreko gaien eta izaera berritzailearen arabera zehaztua.

3.– Ikastaroaren edo mintegiaren edukia sektore horretan atzemandako beharretara moldatzea.

4.– Baliabide ekonomikoen behar objektiboa. Horretarako erakunde edo entitate eskatzaileak behar adina dokumentazio aurkeztu beharko du, ebaluatu ahal izateko, espresuki adieraziz finantziazio-iturriak.

*15. artikulua.*– Emakidarako prozedura, zenbatekoa eta ordaintzeko modua.

1.– Laguntzak emateko erabiliko den prozedura nagusia lehiaketa izango da, eta halakotzat hartuko da azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko, Euskadiko Ogasun Orokorreko Oinarri Antolatzaileen Legearen Bateratutako idazkiko 51.4 artikuluan aurreikusitako prozedura.

2.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuen kasuan onartutako aurrekontuaren %100 finantzatu ahal izango du, eta gehienera %50 erakunde publikoen kasuan.

Ordainketa zatikatua izango da, %50 emakidaren unean ordainduko baita, eta gainerako %50a egindako gastua egiaztatzen duten agiri originalak edo, bidezko arrazoirik baldin balego, horien kopia konpultsatua aurkeztean, jarduera amaitu eta bi hilabeteko epean.

2. ATALA: JARDUNALDIAK, BILTZARRAK ETA ANTZEKO EKITALDIAK ANTOLATZEKO LAGUNTZA-ILDOAK.

*16. artikulua.*– Xedea.

Diru-laguntza jasotzeko ekintzatzat hartuko dira jardunaldiak, biltzarrak eta gizarte-zerbitzuen alorrean informazioa eta esperientziak trukatzeko antzeko ekitaldiak antolatzeko jarduerak.

*17. artikulua.*– Erakunde onuradunak.

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte indarrean dagoen legegintzaren arabera osatutako irabazi-asmorik ez duten entitate pribatu eta partzuergoek, mankomunitateek eta udalek, eta gizarte-zerbitzuak emateko helburua duten horien menpeko erakundeek. Horiek Dekretu honetan eta dagokion garapen-aginduan aurreikusitako baldintzak beteko dituzte, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan jardunaldiak, biltzarrak eta antzeko ekitaldiak antolatuko dituzte.

*18. artikulua.*– Esleipenerako irizpideak.

Honakoak izango dira esleipenerako irizpideak:

2.– Calidad o interés del curso o seminario, determinado por las materias a tratar y su carácter innovador.

3.– Adecuación del contenido del curso o seminario a las necesidades detectadas en el sector correspondiente.

4.– Necesidad objetiva de recursos económicos, para lo cual se deberá aportar documentación suficiente de la institución o entidad solicitante para posibilitar su evaluación, con indicación expresa de las fuentes de financiación.

*Artículo 15.*– Procedimiento de concesión, cuantía y forma de pago

1.– El procedimiento para la concesión de las ayudas será el concurso, teniendo dicha consideración el procedimiento previsto en el artículo 51.4 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

2.– El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, podrá financiar en el caso de las entidades privadas sin ánimo de lucro hasta el 100% del presupuesto que resulte aprobado, y hasta un máximo del 50% en el de las instituciones públicas.

El pago será fraccionado, abonándose el 50% en el momento de la concesión y el otro 50% previa presentación de los documentos originales justificativos del gasto realizado o, cuando concurra causa justificada, copia compulsada de los mismos, en el plazo de dos meses a partir de la finalización de la actividad.

SECCIÓN 2ª: LÍNEA DE AYUDAS PARA LA ORGANIZACIÓN DE JORNADAS, CONGRESOS Y EVENTOS SIMILARES.

*Artículo 16.*– Objeto

Tendrán la consideración de actuaciones subvencionables aquellas actividades que supongan la celebración de jornadas, congresos y eventos similares orientados al intercambio de información y experiencias en el ámbito de los servicios sociales.

*Artículo 17.*– Entidades beneficiarias

Podrán acogerse a estas ayudas las instituciones públicas y las entidades privadas sin ánimo de lucro que, constituidas conforme a la legislación vigente, cumplan los requisitos previstos en este Decreto y en la Orden de desarrollo correspondiente y organicen dentro del territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, jornadas, congresos y eventos similares.

*Artículo 18.*– Criterios de adjudicación

Serán criterios de adjudicación los siguientes:

1.– Baliabide ekonomikoen behar objektiboa. Horretarako erakunde edo entitate eskatzaileak behar adina dokumentazio aurkeztu beharko du, ebaluatu ahal izateko, espresuki adieraziz finantziazio-iturriak.

2.– Erakundearen edo erakundearen prestakuntza eta izena, eta txostengileena hala bada.

3.– Antolatutako ekitaldiaren eragina, jasotzaile izan daitezkeen pertsonen kopurua kontuan hartuta.

*19. artikulua.–* Emakidarako prozedura, zenbatekoa eta ordaintzeko modua.

1.– Laguntzak emateko erabiliko den prozedura nagusia lehiaketa izango da, eta halakotzat hartuko da azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko, Euskadiko Ogasun Orokorreko Oinarri Antolatzaileen Legearen Bateratutako idazkiko 51.4 artikuluan aurreikusitako prozedura.

2.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuen kasuan onartutako aurrekontuaren %100 finantzatu ahal izango du, eta gehienera %50 erakunde publikoen kasuan.

Ordainketa zatikatua izango da, %50 emakidaren unean ordainduko baita, eta gainerako %50a egindako gastua egiaztatzen duten agiri originalak edo, bidezko arrazoirik baldin balego, horien kopia konpultsatua aurkeztean, jarduera amaitu eta bi hilabeteko epean.

3. ATALA: LURRALDEAZ GAINDIKO ESPARRUETARA IREKITAKO PROGRAMAK GARATZEN DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ENTITATE PRIBATUEN FUNTZIONAMENDUARENTZAKO LAGUNTZA-ILDOAK

*20. artikulua.–* Xedea.

Diru-laguntza jasotzeko jardueratzat hartuko dira lurraldeaz gaindiko esparruan gizarte-zerbitzuen alorrean prebentzio, arreta eta gizarteratze jarduerak edo programak egiten dituzten erakundeetako pertsonal eta mantentze gastuak, bertan aplikatzekoak soilik ez direnak.

*21. artikulua.–* Erakunde onuradunak.

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte indarrean dagoen legegintzaren arabera osatutako irabazi-asmorik ez duten entitate pribatuek. Horiek Dekretu honetan eta dagokion garapen-aginduan aurreikusitako baldintzak beteko dituzte, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan aurreko artikuluan deskribatutako jarduerak egingo dituzte.

*22. artikulua.–* Esleipenerako irizpideak.

Honakoak izango dira esleipenerako irizpideak:

1.– Erakundeak egindako jardueren eta programen ezarpena edo lurralde esparrua, baita bazkide edo afi-

1.– Necesidad objetiva de recursos económicos para lo cual se deberá aportar documentación suficiente de la institución o entidad solicitante para posibilitar su evaluación, con indicación expresa de las fuentes de financiación.

2.– Cualificación y prestigio de la institución o entidad y de los ponentes en su caso.

3.– Incidencia o impacto del evento organizado por referencia en el número de personas potencialmente receptoras del mismo.

*Artículo 19.–* Procedimiento de concesión, cuantía y forma de pago

1.– El procedimiento para la concesión de las ayudas será el concurso, teniendo dicha consideración el procedimiento previsto en el artículo 51.4 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

2.– El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, podrá financiar en el caso de las entidades privadas sin ánimo de lucro hasta el 100% del presupuesto que resulte aprobado, y hasta un máximo del 50% en el de las instituciones públicas.

El pago será fraccionado, abonándose el 50% en el momento de la concesión y el otro 50% previa presentación de los documentos originales justificativos del gasto realizado o, cuando concurra causa justificada, copia compulsada de los mismos, en el plazo de dos meses a partir de la finalización de la actividad.

